

2024ko apirilaren 2ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Kattalin Duhalde, Anne Marie Darguy, Maité Oxarango, Chantal Echevertz, Philippe Mongabure, Samuel BISCAY, Hervé Parachou, Ramuntxo Oteiza, Patrick Barneche, Frédéric Hernandez, Arño Gastambide

Bilkurara ezin etorria jakinarazia zutenak: Karine Perez, Sabine Etcheverry, Koxe Barbier

1. 2023ko esplotazio-emaitzaren esleitzea

2023ko kontu administratiboak erakutsi du:

Herriko Etxearen kontuan:

- 358 771.41 €-ko funtzionamendu-soberakina
- 404 537.79 €-ko finantzamendu beharra (inbestimendu defizita + betetzekoak diren gaineratikoak)

Lotizamenduetarako:

- Harrietakoborda:
57 389.98 €-ko funtzionamendu-soberakina
163 418.86 €-ko inbestimendu soberakina
- Landaluxia: 25 279.65 €-ko inbestimendu soberakina

Aho batez onartua.

2024ko aurrekontuari buruzko aitzinsolasa:

2023ko kontu administratiboaren bozkatzearen karietara ohartu zareten bezala, badugu funtzionamendu-soberakin adierazgarri bat baina ez da nahikoa betetzekoak diren gaineratikoak eta inbestimenduen bukaerako defizita konpentsatzeko.

Ez dugu aurrekontuaren erabilera positiborik ukanen, 2023an ukan genuen bezala (94 450 €).

2024ko funtzionamendu aurrekontua murrizta gelditzen da eta aitzineko urteetakoaren araberakoa.

Halere, soberakin bat atera dugu eta horri esker gure inbestimendu-aurrekontu handiaren parte bat finantzatzeko ahalko dugu (bereziki Beltzagiteko obrak).

FHNrendako Estatuaren diru-zuzkidurak ez eta ere bizitegi zergaren zenbatekoaren kalte-ordaina ez dira batere goratu. Zerga sistema aldatu beharko da gure engaiamenduak betetzeko manera ukan dezagun, eta lehen emendioa izanen da 2020az geroztik.

Finantzamendu gehigarria 300 000 €-ko banku-mailegu bati esker bermatuko da (proposatu lehenbiziko mailegua 2020az geroztik, ordaintzeko eta berriz mailegatzeko dugun ahalmena errespetatuz).

2024ko diruzaintza justua izanen da baina egin ditugun dirulaguntza galdeen erantzunen beha gaude.

2. 2024ko tasen bozkatzea (proposamena beherago)

Tasak	2023ko tasa	Bozkatu tasak	Oinarriak	Etekinak
		2024an	2024	2024
Funts Eraikiaren Zerga	23	23.69	985 800	233 536
Funts ez-eraikiaren zerga	29	29.87	76 100	22731
Bizitegi zerga	10.51	11.67	132 100	15 416
Orotara				271 683

Emendioa aho batez onartu da

3. Aurrekontuen bozkatzea

AURREKONTU NAGUSIA – Funtzionamenduaren ikuspegi orokorra

FUNTZIONAMENDU GASTUAK		FUNTZIONAMENDU IRABAZIAK	
	Proposamena k		Proposamena k
011 - Kargu orokorrak	146 500,00	70 – Zerbitzuen, jabegoaren eta salmenten etekinak	67 050,00
012 - Langile-karguak eta dagozkien gastuak:	172 725,00	73 - Orotariko zergak	468 692,00
		74 - Diru-zuzkidurak eta parte hartzeak	210 124,00
65 – Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	176 550,00	75 – Kudeaketa arrunteko bestelako etekinak	40 000,00
66 - Finantza-karguak	10 700,00	013 - karguen arintzea	6 700,00
Gastu errealak orotara	506 475,00	Irabazi errealak orotara	792 566,00
Ordena gastuak orotara	286 091,00		
Funtzionamendu gastuak orotara	792 566,00	Funtzionamendu irabaziak orotara	792 566,00

Aurrekontu nagusia – Inbestimenduak

GASTUAK		2024ko IRABAZIAK	
2023ko inbestimendu defizita	204 190,00	Kapitalizatu funtzionamendu	358 771,41
Maileguen kapitala	70 450,00	2024ko funtzionamendu	263 119,00
Bidea zabaltzeko lurra	250,00	Balio erantsiaren gaineko	43 500,00
SCICaren parte sozialak	1 000,00	Amortizazioaren zor kitatzea	22 972,00
LTEPren eramatearen ordaintzea	60 500,00	Betetzekoak diren gaineratikoak	11 452,00
		Lotizamendurako lurra	128 661,00
		Abantzia	42 883,00
Orotara	336 390,00	Orotara	871 358,41
Balantza edo soberakina			534 968,41
Ekipamendu operazioak	2023ko	2024ko inbestimendu	Dirulaguntzal/m
Beltzagitearen zaharberritzea	134 200,00	800 000,00	565 531,00
Bideak/Sareak	45 000,00	62 000,00	18 300,00
Suteen kontrako defentsa	7 600,00	5 000,00	
Orotariko obrak	4 000,00	20 000,00	
Higigarrien erosketa	5 900,00	20 000,00	
Herriko Etxea- balantza	9 900,00		
TE64	5 200,00		
INBESTIMENDUAK	211 800,00	907 000,00	583 831,00
			534 969,00
			Finantza beharra
			0,00
		Mailegua	300 000,00
		DIRU-LAGUNTZAK:	265 531,00
			Apirila
			Urria
			565 531,00

Aurrekontu nagusia aho batez onartu da (ikus zehazki eranskinetan)

LOTIZAMENDUETARAKO AURREKONTU GEHIGARRIAK

Harrietakoborda:

Inbestimendua

Gastuak	:	288 738,38	(egitekoak diren 0.00 barne)
Irabaziak	:	288 738,38	(egitekoak diren 0.00 barne)

Funtzionamendua

Gastuak	:	274 645,82	(egitekoak diren 0.00 barne)
Irabaziak	:	274 645,82	(egitekoak diren 0.00 barne)

Landaluxia:

Inbestimendua

Gastuak	:	178 359,65	(egitekoak diren 0.00 barne)
Irabaziak	:	178 359,65	(egitekoak diren 0.00 barne)

Funtzionamendua

Gastuak	:	298 556,31	(egitekoak diren 0.00 barne)
Irabaziak	:	298 556,31	(egitekoak diren 0.00 barne)

Bi aurrekontu gehigarri horiek bururatu behar genituzke azken lur-zatia saldu ondoan. Hortik landa, beste gastuak balira, aurrekontu nagusian kontaktuko dira.

Orduan operazioen kontu-bilana eginen da eta aurrekontu nagusian berreskuratuko da aurreikusi soberakina.

Bi aurrekontu gehigarriak aho batez onartu dira.

Egitekoak diren inbestimenduei buruz puntua:

Beltzagiteko obrak 2024an bururatu behar litezke, eta orduan argiago ikusiko da aurreikusi inbestimenduak segitzen direnez eta inbestimendu berriak egitekoak direnez: lursailaren antolamenduaren bururatzeari, herriaren zeharkatzearen eta segurtatzearen, hondarkinen ezartzeko edukiontzien lurperatzearen, ur erreserben ezartzeari suteen kontrako defentsarako.

4. 300 000€ko mailegua (gehienez) Beltzagiteko obrak egiteko

Banku batekin baino gehiagorekin harremanetan sartu gara 300 000-ko maileguaren egiteko (gehienez)

"Banque des Territoires" bankuak egin eskaintzak du herriaren beharrei hobekienik ihardesten. Hona eskaintza honen ezaugarriak:

- Zenbatekoa: 300 000€
- Mailegu mota: Transformazio ekologikoa - Tokiko Alor Publikoaren Proiektua
- Iraupena: 300 hilabete
- Tasa: Berrikusia izan daiteke A libretan, +%0,40 edo % 3,40
- Amortizazio eta interes epemugak: hiru hilabete guzietan
- Instrukzio komisioa: maileguaren zenbatekoaren % 0,06, hots, 180 €
- Ordainketa aitzinatuen ordainsaria: Ordainsari aktuariala
- Ordainketa berantarako ordainsaria: indarrean den indizearen tasa + % 6

Herriko Kontseiluak onartu du

5. Beltzagitea: BEZaren menpekotasuna

Beltzagitea etxearen berritze proiektuan 4 entitate badira, BEZ sistema desberdina dutena.

- Hartzain-etxe bat haur ttipien errezibitzeko, etxe behean, antolaturik alokatua;
- Hutsik alokatu egoitzak osasuneko profesionalei 1. estaian;
- F1 motako bizitegi bat PALULOS dispositiboaren kariatara alokatua, 1. estaian;
- Bilkura eta bilketa gela bat Herriko Etxearendako, azken estaian.

Bilkura eta bilketa gela BEZaren aplikazio eremutik kanpo da (BEZaren ordainsari funtsaren berreskuratze arrunta n+1 urtean)

Bizitegia "Norberaren eskuratzea" operazioaren bidez eskuratuko da urrats beretik (% 10eko BEZa).

Profesionalendako gelak BEZaren menpe dira (Zergen Kode Orokorreko 256. artikulua) gelak antolaturik alokatzen direlarik, hots, alokatzailearen jarduerarako beharrezkoak diren altzariekin (Hartzain-etxearen kasuan bezala).

Haatik, profesionalei alokatzen diren gela hutsak BEZik gabekoak dira (Zergen Kode Orokorreko 261. artikulua). Bizkitartean, borondatezko zergarako hauta dezakete (Zergen Kode Orokorreko 260 artikulua 2. paragrafoa). Azken egoera horretan, jabe alokatzaileak hautu hori behar du zehaztu kontratuan. BEZaren menpeko izateko hautua posible da, beraz, osasuneko profesionalei hutsik alokatuak diren geletarako.

Erabilera profesionalerako gela hutsen alokatzeko BEZaren menpekotasunari esker Herriko Etxeak obren BEZa berreskuratzen ahalko du.

Proposatu da osasuneko profesionalei hutsik alokatu osasun-gelak BEZaren menpe ezartzea.

Herriko Kontseiluak onartu du

6. Landaluxeko 3. zatiaren esleitzea

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio 2023ko otsailaren 6ko erabakia baita ere Landaluxia lotizamenduko 3. zatia esleitzen duen 2023ko abenduaren 11ko erabakia. Landaluxia lotizamenduko 3. zatiari doakionez bi eroslek gibelerara egin ondoan, orain beste erosle bati esleitu behar zaio zatia.

2023ko urtarrileko lehen epaimahaiaren ondotik Landaluxeko zatien erosteko atxikiak izan ez ziren eroslegaien sailkapen bat egin zen.

Proposatu da Landaluxia lotizamenduko 3. zatia, 515 m² zabal dena, Benoît MOUSTIRATS jaunari uztea 33 475 €-tan (BEZa gabe).

Herriko Kontseiluak onartu du.

7. Kurutzaldeko herri bidearen erregulartzea

2023ko uztailaren 17an erabaki bat hartu zen Kurutzaldeko herri bideko zatiaren erregulartzeko, alabaina duela zenbait urte zabaldu zen jabe eskualdaketa agiririk egin gabe.

Geometra jin da eta banaketa mapa berria egin du Marie-Gracie HABENSE andereari erosi beharreko (5 €/m²) lurren azalera aldatuz.

- 398 m²ko B 1617 lursaila, Kurutzaldeko herri bidean sartzekoa;
- 70 m²ko B 1619 lursaila, baserri-bidean sartzekoa

Hots, 468 m² ez eta 409 m².

Herriko Kontseiluak onartu du.

8. Herrien Biltzarrari kidetzea

Ipar Euskal Herriko Herrien Biltzarrak bulegoa berritu du erakundearen jarraipena bermatzeko. Ipar Euskal Herriko hautetsien biltzar hori tokiko hautetsi guztiak biltzeko eta haien artean trukatzeko lekua da.

Beraz, herri bakoitzari galdegin zaio tituludun bat eta ordezkari bat hautatzea Herriko Kontseiluko kideen artean, eta 0,05 €/ biztanleko urtesaria ordaintzea.

Maite Oxarango eta Arño Gastambide izendatu dira.

9. Hitzartzearen bilana eta Energia Berriztagarrien Aldeko Azeleratze-Eremuak

Auzapezak oroitarazi du Herriko Kontseiluaren 2024ko otsailaren 12ko erabakia: erabaki horren bidez hitzartze moldeak finkatu zituen azeleratze-eremuak ezartzeko energia berriztagarrien ekoizpenerako lurreko instalazioak plantan ezartzeko, energia berriztagarrien ekoizpenerako azeleratzeari buruzko 2023ko martxoaren 10eko 2023-175. legerako 15. artikulua arabera.

Erabaki horren arabera:

Herriko Etxeak pentsatu zituen azeleratze-eremu batzuei buruzko argibide dosierra ikus zitekeen 2024ko otsailaren 27tik martxoaren 18ra. Herriko Etxean bazen hitzartze erregistro bat, eta horri esker publikoak oharrak idatzi ahal izan ditu.

Auzapezak atxikirik aurkezten du hitzartze horren bilana (Ikus 3 – Hitzartze publikoaren bilana). 3 pertsonak oharrak idatzi dituzte erregistroan.

Hitzartzearen ondotik, azeleratze-eremuak identifikatu dira energia berriztagarrien ekoizpenerako lurreko instalazioak bertan ezartzeko. Hauek dira:

- Herriko teilatu guztiak eguzki panel fotovoltaikoak ezartzeko edo eguzki panel termikoak (Frantziako Eraikinen Arkitektoak arautu guneetan barne).
- Egur berogailu sareen garatzea (ONFk kudeatu herriko oihanen mantentzea eta erabiltzea)
- Eta gogoeta gune baten garatzeko xedea gutiago eta hobekiago kontsumitzeko

Gainerako gaiak

- Lurraren erostea: hiru dossier hauei buruzko puntua: Harosteguy, Malegarie eta Etchegoin salmentak. Hiru dossierretan aitzinatu gara, eta erabakiak hartu beharko dira ondoko kontseiluetan.
- Ateraldia **Antzuolara 2024ko apirilaren 13an**, 40. urtemugaren karietara. Izena eman Herriko Etxean.
- Asiako liztorrak: herritarrei deialdia: orain da harrapari horri kalte egiteko kanpainaren egiteko mementoa. Gure banaketa kanpainaren ondotik, beste andana bat manatu dugu eta Herriko Etxean oraino badira.
- Biga Bat HeBHeSaren karietara, 4 eguneko astearen eta LHPren (Lurraldeko Hezkietara) segitzea hautatu da 3 urterako.
- Herritar kafea/bilkura publikoa egitea proposatu da **apirilaren 28an, igandean, 9:30ean**, denen etxean edo jantegian. Bizitegi sozialaren berri emanen da Herrian Bizi plataformaren laguntzarekin. Puntua eginen dugu ere Beltzagitearen berritzeari buruz eta lur-funtsei buruz.
- Europar hauteskundeak izanen **2024ko ekainaren 9an** (permanentzia 8:00-18:00), hauteskunde kanpaina maiatzaren 27tik ekainaren 8ra
- Freedom for Aiherra ekitaldiko kontzertuak 2024ko apirilaren 20an iraganen dira pilota plazan, karpa azpian.
- Beltzuntze elkarteak antolatu kantaldia denen etxean, maiatzaren 5ean, Ruper Ordorikarekin
- Eskola publikoak antolatu merkatua maiatzaren 1ean

Bilkura 22:30ean bururatu da

Arño Gastambide, auzapeza